

**2014/02/25(e)ko saioa**

**HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA X. LEG.**

Jaurlaritzak espainiako hiru legeren aurkako errekursoak aurkeztu ditu Konstituzionalean: LOMCE, Ingurumen Ebaluazioaren Legea eta Merkatu Batasunaren Legea.

**OSASUN SAILA X. LEG.**

Zigarreta elektronikoaren erabilera gurean arautu eta mugatzeko agindua abian jarri du Osasun Sailak.

## **HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA X. LEG.**

**Jaurlaritzak espainiako hiru legeren aurkako errekurtsok aurkeztu ditu Konstituzionalean: LOMCE, Ingurumen Ebaluazioaren Legea eta Merkatu Batasunaren Legea.**

Erabakia, Lege honen zenbait arauen aurka konstituzio kontrako errekurtsok jartzea baimentzeko: 8/2013 Legea, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko dena.

Erabakia, Lege honen zenbait arauen aurka konstituzio kontrako errekurtsok jartzea baimentzeko: 20/2013 Legea, abenduaren 9koa, Merkatuaren Batasuna Bermatzeko dena.

Erabakia, Lege honen zenbait arauen aurka konstituzio-kontrako errekurtsok jartzea baimentzeko: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumena Ebaluatzeko dena.

### **LABURPENA**

**Bere iritzian, Espainiako gobernuak dagozkion mugak gainditu ditu hiru arlo horiek arautzean eta hezkuntzako, ingurumen eta ekologiako eta autonomia erkidegoen autonomia politikoaren alorretako eskumenei erasan die.**

**Behin errekurtsok onartuta, Estatuaren eta Euskadiren arteko Alde Biko Batzordean 6 hilabeteko negoziazio-epea irekiko da, akordioa lortzeko eta errekurtsok aurrera ez egiteko.**

Gobernu-kontseiluak gaur eman du baimena hiru konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsok aurkezteko. Hauek dira errekurritutako legeak: *Hezkuntza-kalitatearen Hobekuntzarako abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa, Ingurumen-ebaluazioko abenduaren 9ko 21/2013 Legea eta Merkatu-batasuna Bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legea.*

### **LOMCE**

Lehenik, Jaurlaritzaren iritzian, LOMCEk izaera bidegabeki homogeneizatzailea du, eta balio demokratikoekiko, aniztasunarekiko eta elebitasunarekiko errespetu sakonean, balizko desberdintasunen konpentsazioan eta aniztasuna ikasgeletan integratzean oinarritutako euskal hezkuntza-sistemarekin aurrez-aurre egiten du talka. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak konstituzio-kontrakotasuna sumatzen du, besteak beste, honako alderdi hauetan:

**Ikaskuntza-estandarrak** zehaztean eta ebaluatzean. Eusko Jaurlaritzak salatutakoaren arabera, Espainiako gobernuak hezkuntzako profesionalek irakatsi beharreko edukiak zehazteko ardura eskusiboki eta era baztertzailan bere gain hartzen du, gobernu autonomikoek ere zeregin horretan parte-hartzea derrigorrezkoa izan arren.

LOMCEk **DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat amaierako kanpo-ebaluazioko probak** ezarriko ditu, eta, horrela, EAE Espainiako gobernuak finkatutako irizpideen betearazle soil izatera mugaraziko du. Horrek Gernikako Estatutuan jasotako eskumenak ukatzea dakar.

Gainera, dagozkion mugez gaindi dihardu, gehiegizko xehetasunez zehazten dituelako ikasleen **Lanbide Heziketarako eta Unibertsitate-hezkuntzarako sarbide-baldintzak**. Horrela jokatuta, ez die tarterik

uzten hezkuntza-administrazioei beren beharren arabera irizpideak ezarri ahal izateko.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzari kezka handiena sortzen dion alderdia LOMCEk **hizkuntza koofizialak** tratatzeko modu onartezina da. Horri dagokionez, gogora dakar koofizialtasunaren irismena arautzeko eskumena ez dagoela inola ere Estatuaren esku, eskusiboki EAEn esku baizik.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak uste du Legeak **Hezkuntza-eskubide funtsezkoa** urratzen duela, hain zuzen ere, alderdi hauean:

Irakaskuntza-aukeren arteko bereizketa (Batxilergoa edo LH) 15 urterekin egin beharra ezartzen du. Bada, frogatuta dago bereizketa goiztiarrak eragin negatiboa duela hezkuntza-sistemen eraginkortasunean nahiz ekitatean.

Gainera, eskolaratze-irizpideak aldatu dira, eskola-errendimenduaren irizpidea ezarrita. Horrenbestez, doako ikastetxea aukeratzeko eskubidea gauzatzeko oinarritzko baldintza-berdintasuna zalantzan jarriko da.

Legeak Eskola-kontseiluaren funtzioen berrantolaketa esanguratsua proposatzen du, parte-hartzea nabarmen murriztuz, Eusko Jaurlaritzaren iritzia aurka.

Hain zuzen ere, ondorengo atalak errekurrituko dira: 5, 9, 15, 16, 20, 22, 23, 25, 26, 29, 31, 34, 38, 60, 80, 81, 89, 97 eta 99.

## **MERKATU BATASUNA**

Bigarrenik, Jaurlaritzaren iritzian, *Merkatu-batasuna Bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legeak **arau-aniztasun autonomikoa berdintzea du xede***, merkatu-batasun nazionala bermatzeko aitzakian.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzarentzat, **bateratzea eta berdintzea ez dira gauza bera**, eta ez da onargarria pertsonen, ondasunen eta zerbitzuen kokapen eta zirkulazio askea ordena ekonomikoaren funtsezko ardatz direnaren aldarria egiteak autonomiaren eta eskumen-banaketa printzipioa kaltetzea, munta ekonomiko handieneko arloak arautzeko. Hala, Espainiako gobernuak merkatu-batasunaren printzipioa eta arau-aniztasun autonomikoa bateragarri egin beharko lituzkeela uste du.

Merkatu-batasuna Bermatzeko Legearen demaseko arautzeek **babesgabetasuna** eragiten dute eskumena EAEn dagokion **interes orokorreko alderdi askotan**: hizkuntza-eskubideak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa, ondare historikoaren, artistikoaren eta kulturalaren babesa, bide-segurtasuna, animalien eta landareen babesa, etab.

Hala, eragile ekonomikoen arteko lurraldearen arabera tratu-desberdintasuna sorraraziko da, eta horrek **enpresen eta eragileen deslokalizazioa ekar dezake**, araudi malguagoa xede.

Lege horrek, eraginkortasun-printzipioaren aitzakian, autonomia-erkidegoak eta toki-erakundeak **eragile ekonomikoaren sorterriko araudia aplikatzera behartzen ditu**, beren araudia aplikatu ordez.

Gainera, paradoxikoki, merkatu bakarra sortzeko helburua duen legea izan arren, egiaz **merkatu bikoitza sortuko du**: Espainia barrukoa bata, Europarekikoa bestea.

Hala, 4. eta 5. artikulua, 1., 6., 10., 11., 12., 14., 15., 17., 18., 19., 20., 26., 27. eta 28. atalak, Hirugarren Xedapen Gehigarria, Zortzigarren Xedapen Gehigarria, Hamargarren Xedapen Gehigarria, Amaierako

Lehen Xedapena eta Amaierako Bosgarren Xedapena errekurrituko dira.

## **INGURUMEN EBALUAZIOAREN LEGEA**

Hirugarrenik, Eusko Jaurlaritzaren iritzian, *Ingurumen-ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea* **hain da zehatza eta hainbesteko xehetasunez dago emanda, ia erabat agortzen dela EAEn arau osagarriak ezarri ahal izateko gaitasuna, ingurumenaren eta ekologiaren arloan.**

Gainera, araua eman den aldi berean proiektuen ingurumen-ebaluazioari buruzko EBren 2011/92/UE Zuzentarauaren aldaketa sakona izapidetzen ari dira, aipatutako Legea aldatu behar izatea ekarriko duena ziur.

Errekurtsoa aurkezteko beste arrazoi bat da Espainiako gobernuak **Ingurumeneko Sektore-konferentzian** egin duen aldaketa da. Ez da gehiago kontsultarako eta informazio-trukerako lankidetzak-organok izango, arau autonomikoetan erreformak sustatzeko gaitasuna duen tresna baizik. Horrela, EAEn eskumenak mugatuta gera daitezke.

Zehazki, 4. artikulua 1., 2. eta 3. atalak, 12 artikulua 2., 3., 4. eta 5. atalak eta 19., 24., 30., 34., 40., 46., 49. eta 50. artikulua, Xedapen Iragankor Bakarraren 2. atala, Amaierako Zazpigarren Xedapena eta Amaierako Hamaikagarren Xedapena errekurrituko dira.

## **OSASUN SAILA X. LEG.**

**Zigarreta elektronikoaren erabilera gurean arautu eta mugatzeko agindua abian jarri du Osasun Sailak.**

### **LABURPENA**

**OME-REN gomendioen ildotik.**

**Izapidetze-fasean dagoen aginduak osasun-zentro eta establezimenduetan, ikastetxeetan, herritarrek artatzeko administrazio-bulegoetan eta garraio publikoetan erabiltzea burutik kentzeko neurriak dakartza.**

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak zigarreta elektronikoaren erabilera hemendik aurrera arautu eta mugatuko duen agindua abian jarri dela eman dio ezagutzera Gobernu Batzordeari. Ez langile publikoek, ez herritarrek **osasun-zentro eta establezimenduetan, ikastetxeetan eta EAEn Administrazio Orokorren egoitzetan, garraio publikoak barne**, halakorik ez erabiltzeko neurriak ekarriko ditu izapidetze-fasean dagoen agindu berriak.

Halaber, **gomendioa egingo die EAEn gainerako Administrazio Publikoek** zeinek bere esparruan ere antzeko neurriak har ditzan.

Neurriak **Osasunaren Mundu Erakundearen** gomendioei jarraitzen die, zeren produktuak kalterik egiten ez duela frogatu artean halakorik ez erabiltzeko baitio, areago EBn lege-erreferentzia izango den **Zuzentaraua** onetsi bitartean. Dena den, debekatuta dago zigarreta elektronikoa 18urte baino gutxiago dutenei saltzea.

Aginduaren justifikazio-atalean -zeinak zuhertasun-printzipioa eta eredugarritasuna aipatzen baititu- gogorarazten denez, ezen produktuaren publizitateak tabakoaren ordezkoko gisa eta hura erretzeari uzteko artikulu lagungarri gisa aurkeztuagatik ere, **oraindik orain ez da frogatu zeregin horretan eraginkorra denik, ez eta kalterik eragiten ez duela ere**, ez baitago zuzeneko erabiltzaileen zein inguruan diren zeharkako erabiltzaileen osasunaren gaineko eraginari buruzko ebidentzia zientifikorik.

Izan ere, gailuaren segurtasuna, eraginkortasuna eta izan litezkeen bestelako ondorioak zein diren argituko bada, ikerketa eta azterketa gehiago egin behar dira eta oraingoz ez da zeharo baztergarria **zigarreta elektronikoak toki publikoetan erabiltzeak kolokan jartzea tabakoaren kontsumoa arautu zenetik lortu den normalizazioa**. Arau horiexek hartuko dira, gainera, erreferentziatzat zigarreta elektronikoaren erabilera arautzeko.

---

**# Osasunaren Mundu Erakundeak** halakorik ez erabiltzeko gomendioa zabaldu zuen 2013ko uztailean, harik eta ondo argitzen den arte produktu segurua, eraginkorra eta kalterik gabea den, betiere erakunde arautzaile nazional eskudunak ziurtatuta.

# Bestalde, **Europako Parlamentuak** proposamen bat egin zuen 2013ko urriaren 8an, halako produktuak katalogatu aurretik horiek ebaluatuko dituzten azterketak egin daitezela eskatzeko, eta uste da aurrean bertan onartuko dela horri dagokion Zuzentaraua, estatuak zeinek bere antolamendu juridikora eramatean errespetatu beharreko printzipio eta neurri orokorrak xedatuko dituen testu estandarra, hain zuzen.

---